

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, G.H.K. S.A.U.-REN ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ASEGURUEN ESTALDURA KONTRATATZEKO

1.- DEFINIZIOAK:

1.1. Aseguratua

Aseguruaren hartzailea, hau da, pertsona fisikoa edo juridikoa, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U., aseguratzaileekin batera poliza hau sinatzen duena; honi dagozkio bertatik eratorzen diren betebeharrak guztiak (bereziki primaren ordainketa).

Pertsona juridiko horien zuzendariak, horien erantzukizuna bilatzen denean, ez pertsonala, baizik eta pertsona juridiko horien aurka zuzendutako erantzukizuna jokoan jartzen duen ekintza baten esparruan.

Aseguru hartzailearen kontura beren zereginak betetzerakoan lan-harremana duten enplegatuak.

Enpresako beste enplegatu batzuk, esaterako, bekadunak, praktiketako ikasleak edo indarrean dagoen lan-arloko legediak onartutako aldi baterako bestelako kontratazioak.

1.2 Hirugarrengoak

Ondoko pertsonen artean ez daudenak:

- Aseguru hartzailea eta aseguratua
- Aseguru hartzailearen eta aseguruaren ezkontideak, gurasoak eta seme-alabak.
- Aseguruaren arduradunak, soldatapekoak eta ez soldatapekoak, aseguruaren xede den arriskuaren berezko jardueren esparruan jarduten duten bitartean.

1.3. Kaltea

Gorputzarekin, materialekin edota ondarearekin lotutako galera edo kalte oro.

1.4. Gorputz-kaltea

Gorputz-lesioa edo heriotza, pertsona fisikoei eragindakoak.

1.5 Kalte materiala

Ondasun bat aldatzea, suntsitzea, hondatzea, desagerraraztea edo galtzea, baita animaliei eragindako kalte ere.

1.6. Ondoriozko kaltea

Galera ekonomikoa, kontratuak jasotako kalte material edo gorputz-kalteen ondorio zuzena dena, galera horren erreklamaziogileak jasandakoak.

1.7. Ondare kalte garbia:

Gorputz-kalea edo kalte materiala edo ondoriozko kaltea ez den kalte oro.

1.8. Kutsadura:

Gai solido, likido edo gaseoso oro igortzea, barreiatzea, isurtzea edo biltzea, atmosferatik, lurretik edo uretik, baita zarata, usainak, dardara, tenperatura aldaketak, uhinak, erradiazioak, izpiak sortzea ere, auzoko ohiko betebeharren neurriak gaindituz.

1.9 Ustekabeko eta bat-bateko kutsadura

Kutsadura:

- Ezohikoa dena eta nahita edo aurreikusita eta onartuta eragindakoa ez dena, ezta aseguratutako instalazioan egindako jardueraren edo hori edukitzearen ohiko ondorio gisa ere.
- Eragin zuen bat-bateko eta aurreikusi ezinezko gertaeraren aldi berean agertzen dena, eta
- Modu geldoan edo pixkanaka edo modu mailakatuan edo kronikoan agertzen ez dena.

1.10 Produktuak

Produktuen Erantzukizun Zibilaren bermerako, aseguruak egindako edo hornitutako materialak, animaliak eta objektuak.

1.11 Ematea

Aseguruak edo bere arduradunek ondasun bat (produktua edo lana) ematea, behin betiko nahiz behin-behinekoz, baita jabetza erreserbarekin ere, emate horrek edukitzeaile berriari ondasun hori erabiltzeko ahalmena ematen badio aseguruaren kontrol edo esku-hartzetik guztiz at. Aseguruak produktua erabiltzeko boterea galtzen duen unea.

1.12 Aseguruaren aldia

Kontratua gertatzen edo berritzen den egunaren eta kontratuaren epemugaren arteko denbora, oro har, hamabi hilabete jarraian.
Kontratua berritzen ez bada edo bertan behera uzten bada, aseguruaren azken aldia kontratuaren epemugarekin edo bertan behera uzten den datarekin amaituko da.

1.13 Frankizia

Ezbehar bati dagozkion ordainketen garaian, aseguruak bere gain hartu eta ordaindu behar duen diru-zenbatekoa, modu finkoan nahiz ehunekotan adierazita.

1.14 Ezbeharra

Aseguruarentzat polizaren estalduraren esparruaren barruan geratzen diren erantzukizunak ekar ditzakeen kaltea gertatzea. Ezbehar bakarra dela ulertuko da jatorrizko

kausa berari dagokion kaltearen gertaera edo gertaera-segida, dauden erreklamaziogileen edo egindako erreklamazioen kopuruak kontuan hartu gabe.

1.15 Aseguratutako zenbatekoa

Aseguratuak bere gain hartzen duen kalte-ordainaren muga, baldintza berezi hauetan finkatu dena. Aseguratutako zenbatekoen hainbat muga zehazten dira:

a) Ezbehar bakoitzeko:

Baldintza berezi hauetan ezarritako zenbatekoa; hori izango da aseguratuak, kasu bakoitzean eta arrisku bakoitzerako, gehienez ordaintzeko konpromisoa hartuko duena, ezbehar bati dagozkion kalte-ordain guztien zenbatekoari dagokiona, biktimen edo kaltetuen kopurua edozein delarik ere.

b) Biktima bakoitzeko:

Baldintza berezi hauetan ezarritako zenbatekoa; hori izango da aseguratuak, kasu bakoitzean eta arrisku bakoitzerako, gehienez ordaintzeko konpromisoa hartuko duena, ezbehar baten biktima bakoitzari dagozkion kalte-ordain guztien zenbatekoari dagokiona. Baldintza berezi hauetan ezbehar bakoitzeko jasotako muga aplikagarria izango da hainbat biktima edo lesionatu dauden istripu beraren kasuan, biktima bakoitzarentzat jasotako mugarekin.

c) Aseguru-urte bakoitzeko:

Baldintza berezi hauetan ezarritako zenbatekoa; hori izango da aseguratuak, kasu bakoitzean eta arrisku bakoitzerako, gehienez ordaintzeko konpromisoa hartuko duena aseguru-urte berean zehar gertatu diren kalteetatik datozen kalte-ordain guztien zenbatekoari dagokionez, horiek ezbehar bati edo gehiagori egozgarriak zaizkion ala ez kontuan hartu gabe. Kopuruaren zenbatekoa murriztu egingo da urteroko batean zehar ezbehar batek edo gehiagok kontsumitzen duten neurrian.

d) Defentsa gastuetarako:

Baldintza berezi hauetan ezarritako zenbatekoa; hori izango da aseguratuak, kasu bakoitzean eta arrisku bakoitzerako, gehienez ordaintzeko konpromisoa hartuko duena ezbehar baten erreklamazioen aurkako zuzendaritza juridikoa eta defentsa direla-eta sortzen diren kostu eta gastuei dagokienez.

2- ASEGURATUTAKO JARDUERA

GHK, S.A.U.-ko hartzaileak hiri-hondakinen goi-kudeaketaren jarduera burutzen du, hauxe:

*Hiri-hondakinak transferentzia-estazioetatik horien norakora edo azken tratamendura garraiatzea. Zerbitzu hori azpikontratatuta dago, eta sozietatearen beraren ibilgailuekin nahiz hirugarrenen ibilgailuekin egiten da.

*Lapatxeko konpostaje-instalazioaren kudeaketa

*Legazpiko ontziak bereizteko instalazioaren kudeaketa (azpikontratatuta)

*Goi-kudeaketarako beharrezkoak diren azpiegituren eraikitze eta ustiatzeko jarduera multzoa, esaterako: transferentzia-estazioak, konpostaje eta biometanizazio instalazioak,

energia-balorizazioaren instalazioa...
*Biohondakinaren tratamendua

3- BERMEAREN IZAERA

Kontratu honek aurreikusitako mugen, baldintzen eta bazterketen barruan, aseguratzailerak aseguratuari bermea ematen dio, goian zehaztutako bere jarduerak burutzearen ondorioz, hirugarrenengoei nahi gabe eragin diezazkiekeen gorputz-kalte, kalte material eta ondoriozko kalteak direla-eta, izan dezakeen erantzukizun zibilaren diruzko ondorioen aurka.

4- ESTALITAKO ARRISKUAK

4.1 USTIATZEAGATIKO ERANTZUKIZUN ZIBIL OROKORRA

Erantzukizun zibil hauek estaltzen dira:

-Aseguratuarena, bere arduradunena, soldatapekoena eta ez soldatapekoena, ikastunena, praktiketako pertsona eta beste edozein pertsona, obretan parte hartu duen denboran zehar aseguratuak horren erantzukizun zibila duela aitortu bada, besteak beste, aldi baterako langileena.

-Aseguratuarena, bere bezeroen instalazioetan egindako mantentze-lanen eta eskaintako zerbitzuen ondorioz. Berme horren barruan daude aseguratuak lanak egiteko erabiltzen dituen eta lehendik zeuden ondasun higiezinetan edo horien auzoan eragindako kalteak.

-Aseguratuak bere jarduerak burutzeko erabilitako edo hartutako instalazio, higiezin, lokal eta orubeena.

-Aseguratuarena, edozein ekipo erabiltzeagatik, indar eragilez dabilen ala ez kontuan hartu gabe, altxatzeko ekipoak, igogailuak, karga-jasogailuak eta zinta garraiatzaileak barne, baita era guztietako ontziak eta bideak ere.

-Aseguratuarena, bere zaintzapean dauden merkantzia, produktu edo materialengatik, baita era guztietako objektu edo zaborrak uzteagatik ere.

-Sute, leherketa edo uren ondoriozko kalteak

-Subsidiarioa, ibilgailuena: Aseguratuaren erantzukizun zibil subsidiarioa, bere enplegatuen jabetzakoak diren ibilgailuek edo haien aseguratuaren kontura kudeaketak egiteko alokatutako ibilgailuek hirugarrenengoei eragindako kalte material edo pertsonalak eta horien ondorioak direla-eta. Estaldura horrek Automobilien Derrigorrezko Aseguruak estalitako bermeen gainetik jarduten du.

-GHKren jabetzako argiteria eta elektrizitate instalazioena.

-GHKren jabetzako propaganda-instalazioena (esaterako, pankartak, argidunak, errotuluak eta antzekoak).

-Lan-arriskuen prebentzioko teknikarien erantzukizuna.

-Aseguratuaren subsidiarioa, eraikitzaile edo eraikuntzen sustatzaile gisa (eraikuntza berriak, berreraikitzeak, konponketak, eraispenak, indusketak...).

-Aseguratuarena, bere instalazioetan ibilialdiak, bisitak, festak, prestakuntzak, adierazpen sozialak edo kirolari dagozkionak antolatzeagatik.

-GHKk garatutako eta aurretik aseguratzaileari jakinarazitako beste edozein jarduera.

4.2 PRODUKTUAREN ETA LAN OSTEKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

Estaldura honen bidez aseguratuaren erantzukizun zibila babesten da, indarrean dagoen legediaren arabera, hornitutako produktuek, amaitutako lanek edo eskaintako zerbitzuek hirugarrengeoi eragindako kalte edo galera materialak direla-eta, kalte edo galera horiek hirugarrengeoi eman, amaitu edo saldu ondoren gertatzen badira.

4.3. ERANTZUKIZUN ZIBIL PATRONALA, LAN-ISTRIPUENGATIK

Estaldura honek, aseguraturako jarduera garatzean gertatutako lan-istripuen ondorioz, aseguratuari eskatzen zaion erantzukizun zibila babesten du, indarrean dagoen araudiaren arabera eta polizan jasotzen diren muga eta xedapenak betez.

Zehazki, estaldura honek ondokoak babesten ditu:

- Erantzukizun Zibil Patronala. Halakotzat jotzen da aseguratuari eskatzen zaion erantzukizuna bere nominan dauden eta Lan-istripuen Aseguruan alta emanda dauden langileek, aldi baterako edo iraupen jakin bateko lan-harremana duten langileek, aldi baterako laneko enpresek kontratatutakoek eta lan-harremanetik at aseguratuaren mendean dauden beste batzuek jasandako lan-istripuengatik.
- Izaera subsidiarioarekin, aseguratuari eskatzen zaion erantzukizun zibila, beste kontratista batzuek, bere edo kanpoko kontratistek eta horien guztien mendean dauden langileek jasandako lan-istripuengatik.

Lan-istripuengatiko Erantzukizun Zibilaren estaldurarako poliza honen baldintza berezietan biktima bakoitzeko azpimuga gisa adierazitako zenbatekoa aplikagarria izango zaie lehen aipatu diren kasu guztiei.

4.4 ERANTZUKIZUN ZIBIL PROFESIONALA

Aseguratuaren erantzukizun zibila bermatuta dago bere jarduera profesionalean (langile tekniko tituluduna) diharduenean hirugarrengeoi gorputz-kalteak, kalte materialak edo ondoriozko kalteak eragiten dizkieten akats edo omisio profesionalen ondorioz, beren zereginak egiten dituzten bitartean, aseguratuarentzat eta aseguratuaren kontura.

4.5 USTEKABEKO KUTSADURAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA

Berme honen bidez, indarrean dagoen legediaren arabera, uren, lurzoruen edo atmosferaren kutsaduraren ondorioak barne hartzen dira, betiere aseguraturako jardueraren ohiko

garapenetik desbideratzen den istripuzko, ustekabeko, bat-bateko edo nahi gabe egindako kausa batetik eratoritzen badira.

4.6 AZPIKONTRATISTEN ERANTZUKIZUN ZIBIL SUBSIDIARIOA

Aseguratuaren azpikontratistek, bere zerbitzura dauden berezko jarduerak garatzerakoan, hirugarren pertsonari eragindako kalte pertsonal, material eta ondoriozko kalteengatik aseguruari egozgarria zaion erantzukizun zibil subsidiarioa estaltzen da.

Aseguratuak konpromisoa hartzen du bere kontratista guztiei erantzukizun zibileko poliza bat sina dezaten eskatzeko; poliza horrek barne hartuko du patronalaren bermea baina ez da horretara mugatuko, eta azpikontratutako jarduera hori estaliko du poliza honen mugaren baliokidea den mugarekin.

4.7. MERKANTZIEN GARRAIOA

Aseguratuaren erantzukizun zibila, bere produktuak garraiatzeko enpresa garraiolariak kontratatzeagatik, baita erantzukizun zibila garraiatutako produktuen jabe gisa ere, bere edo hirugarrenen ibilgailuetan garraiatzen direnean eragin ditzaketen kalteengatik.

4.8 ZAMALANEKIN LOTUTAKO EZBEHARRAK

Horren barnean sartzen da erantzukizun zibila kalte material edo pertsonalengatik eta horien ondorioengatik, garabiek, dibidietek, orga jasotzaileek eta zamalanak egiteko bestelako instalazio mekanikoek eragindakoak, baita eskuz egindako zamalan-eragiketek eragindakoak ere. Eragiketa hauen xede izan den, den edo izango den zama berean eragindako kalteak baztertuta daude, baita itsasontzi, hegazkin edo aireontzietan egindako kalteak ere.

4.9 ONDARE-KALTE GARBIA

Hirugarrenek eragindako eta hartzaileak erantzun beharreko galera ekonomikoak, ustekabeko kalte baten ondorioz, nahiz eta kalte materialik edo gorputz-kalterik ez eragin hirugarrenen ondasunetan edo GHK beraren ondasunetan.

4.10. DEFENTSA GASTUAK ETA FIDANTZA ZIBILA

Erantzukizun zibileko polizak babestutako egintzei dagokienez, horrek honako prestazioak barne hartuko ditu:

-Aseguratuaren defentsa horren aurka hasitako prozedura kriminaletan, aseguruaren xede den jarduera buruzetik badatoz, aurretik defendatuak baimena emanda. Aseguratuak berezko defentsa izendatzen badu, kontzeptu hori dela-eta sortzen diren kostuak eta gastuak bere kontura izango dira guztiz.

-Kausa kriminala dela-eta eskatutako fidantza osoa, betiere egon daitekeen delitua edo falta poliza honek erantzukizun zibileko estaldura ematen dion egintza batetik eratorria

bada.

-Zigorrik ez dakarten prozedura kriminalaren gastu judizialak, betiere egon daitekeen delitua edo falta poliza honek erantzukizun zibileko estaldura ematen dion egintza batetik eratorria bada.

-Gastuak ordaintzetik libratzeko klausula barne hartzen da.

5. KALTE-ORDAINEN MUGAK

Honako mugak ezarri dira:

2015. urterako aurreikusitako fakturazioaren kopurua: 25.000.000€

	EZBEHARRA	URTEROKOA
Ustiatzeagatiko Erantzukizun Zibilaren muga -Subsidiarioa, azpikontratistena - Merkantzien garraioa - Zamalanak - Etab.	2.000.000€	4.000.000€
Erantzukizun Zibil Patronalaren muga - Biktima bakoitzeko azpimuga, 300.000€	2.000.000€	4.000.000€
Produktuen / Lan ostekoen Erantzukizun Zibila	2.000.000€	4.000.000€
Ustekabeko Kutsaduraren Erantzukizun Zibila	2.000.000€	4.000.000€
Teknikarien Erantzukizun Zibil Profesionala	2.000.000€	4.000.000€
Ondare kalte garbiak	600.000€	600.000€
Barne hartutako defentsa eta fidantzak	Barne	Barne

6. FRANKIZIAK

Honako frankiziak ezarri dira:

- Orokorra: 600 €
- Erantzukizun Zibil Profesionala: 2.000 €
- Lehen mailako ondareena: 6.000 €

7. BAZTERKETAK

Lizitatuzaileek eskaintzan espreski zerrendatuko dituzte bazterketak, eta horiek emandako

estalduraren zabaltasunean duten eragina aztertuko da, horiek klausula administratiboen agirian adierazitako balorazio-irizpideen arabera baloratzeko.

8. LURRALDE-ESPARRUA

Polizaren bermeak Europa mailan aplikagarriak izango dira.

9. DENBORA-ESPARRUA

Polizak ordainduko ditu polizak indarrean dirauen bitartean gertatu diren ezbeharren kalteak.

Polizaren bermeak aseguruaren kontratua bertan behera geratzean amaituko dira, baina artatu egingo dira poliza bertan behera geratzen denetik gehienez bi urteko epean egiten diren erreklamazioak, aseguruak indarrean dirauen bitartean gertatutako egintzengatik.